

Prensa-deialdia

Jardunaldia: Desgaitasunaren berri ematea

“Komunikaziotik eraikitzeke erronkak”

- **EDEKAk antolatutako jardunaldi hau urriaren 27an egingo da Donostian**
- **Komunikazioaren munduko profesionalak eta politikaren esparruko ordezkariak izango dira bertan, besteak beste**
- **Topaketan zehar “Nola hitz egin desgaitasuna duten pertsonen inguruan” gida ere aurkeztuko da**

- **Ekitaldia:** Desgaitasunaren berri ematea: komunikaziotik eraikitzeke erronkak jardunaldia
- **Antolatzailea:** EDEKA
- **Tokia:** Intxaurrendoko Kultur Etxea - Félix Gabilondo plaza, 1, 20015 Donostia, Gipuzkoa
- **Eguna:** osteguna, urriak 27
- **Ordua:** 11:00etatik 13:00etara

Desgaitasuna duten pertsonen ordezkarien euskal koordinakundeak (**EDEKA**) antolatuta, “**Desgaitasunaren berri ematea; komunikaziotik eraikitzeke erronkak**” jardunaldia egingo da datorren **ostiralean, urriaren 27an, 11:00etatik 13:00etara** Intxaurrendoko Kultur Etxean, Donostian.

Jardunaldiaren aurkezlea eta dinamizatzailea **Pilar Kaltzada** kazetaria izango da, eta oraingoan, jardunaldiaren oinarria izango da desgaitasunaren inguruko komunikazioa lantzea eta komunikabideetan erabiltzen den **lengoaia** eta haren eragina aztertzea, desgaitasunaren inguruko informazioa nola hobetu, zer egin daitekeen alderdi publikotik eta abar. Gainera, “**Nola hitz egin desgaitasuna duten pertsonen inguruan**” gida ere aurkeztuko dute, komunikaziotik eraikitzeke gomendioekin.

EDEKAko presidentea, **Aitor Bedialauneta**, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako departamentuko diputatua, **Maite Peña**, eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua, **Beatriz Artolazabal**, izango dira irekiera-ekitaldian.

Inaugurazioaren ondoren, EDEKA gidaren aurkezpena egingo dute **Lucía Soriak**, FEVAS Euskadiko Erabateko Gizarteratzeko kideak eta FEVASPACEko **Sebasten Goikoetxeak**.

Jarrian, **mahai-ingurua izango da**, “gaur egun desgaitasuna nola tratatzen den eta zer erronka dituen komunikabideetan” aztertzeke. Bertan parte hartuko dute

Begoña Beristain BB Podcasting-en sortzaile eta kazetariak, **Ander Cornejo** EKA/ACUVeko (Euskal Kontsumitzaileen Elkartea) prentsa-arduradunak, **Amaia Goikoetxea** Euskal Kazetarien Elkarteko dekanok eta **Arantxa Iraola** Berriako kazetariak.

PRENTSA-HARREMANETARAKO:

Mail: prensa@cermi.es

Ainhoa Bueno / 667171898

EDEKAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Prentsa-arduraduna

Nerea Díez: 652 548 693